

Angel Erro

♦ IDAZLEA



DANI BLANCO

Zergatik irakurri klasikoak

KLASIKOAK IRAKURTZEKO ez dagoelako motibo beharrik; beraien iruzkingileak (eta klasikoei buruzko artikulugileak) baino infinituki dibertigarriagoak direlako. Italo Calvinok hala aholkatzen duelako; edizio askoz ere merkeagoetan saldu ohi dituztelako; denbora ongi arduratu delako iraganaren lan kaskarrak galbahetik pasatzeaz, ezein egileren sentsibilitatea zauritu gabe, gaur egungo kortesiak basoak desagerraraztera eta irakurleagoa galtzera darama; elkar-tasunagatik, haiek gutxiengoa baitira; aukera ematen digutelako gutaz guk baino gehiago dakitela egiaztatutakoan harrituarena egiteko; gogoko dituzun egile garaikideak irakurri dituztelako, nabari zaie; gure erantzukizuna ere badirelako, haietako batzuek, izan ere, ez dute idatzi ziren hizkuntzako hiztunik, nahiz eta, bestetik, klasikoek ez duten berezko hizkuntzarik, itzulpena dute berezko hizkuntza bati gehien hurbiltzen zaiena, nola frogatzen baitu atzerritarrek errazago ulertzen dituztela aberkideek baino, unean uneko bertsio berria jaso dezaketelako, sakrilegioan erori gabe (euskaldunok zorioneko gaude, gure klasikoek eskasiak eremu zabala uzten digulako munduko klasiko guztiak geureganatzeko); dagoeneko irakurri dituzulako; *Telecinco*, errudun sentitu gabe, ikasi ahal izateko, betikotasuna Gilgamedekin lortuta baduzulako; apurtzailea hitza zure literatur hiztegitik ezabatzeke; irakasleek irakurketa txatxuak proposatzen dituzten honetan, errebelia ekintza delako.

Ongi, honaino iristeko egonarrria izan baduzu, irakurle horrek; orain artekoa tranpa baino ez da izan, klasikoek irakurri behar kanonikoa jasan ezin duten lagunak gaine-tik kendu eta gu, beste guztiok, bakarka gelditu ahal izateko, gaiaz zintzoki hitz egin eta kritikatuta jarraitu ahal izateko, aurreiritzirik gabe. Gogoan dut behin aspaldiko afaloste batean euskal idazle handi bati

entzun niola gutxiespenez esanez berak ez zuela XIX. mendetik baino lehenagoko ezer ez irakurtzen. Lehen paragrafoko arrazoi guztiak erretorika hutsa dira, ezertarako balio ez dutenak, gutxiago norbait XIX. mendea baino lehenagoko testu batean saia dadin konbentzitzeko. Paragrafo berri

honetan (liburu garaikideak eta ez besterik zergatik irakurri sutsuki defendatzearen tentazio handia behin alde batera utzita), nik tarteka klasikoak zergatik irakurtzen ditudan azaltzea baino helburu handiagoa ezin dut jo: ez hobeak direlako –izan ere, batzuk nabarmen txarrak eta gaizki zaharkituak dira–, baizik eta modaren frenesitik kanpo egon ahal naitzelako. Beti aztoratu nau azken oihuaren bila dabil-tzanen testuarekiko arinkeria. Zerbait lehenak aurkitzen eta ezagutarazten izateak berritzen ditu, ez testuak. Testuok abandonatzen dituzte jada mundu guztiak deskubritu dutenean. Testuok urte gutxi batzuk izan ditza-kete edo mendeak, niri berdin zait. Inorenak ez direnean, orduan, jauzi egiten diet gainera, literatura-ren sarraskijalea ni. Meritua haiena izan bedi, plazera nirea.

Hirugarren paragrafo honetaraino iritsi zaren irakurlea, klasikoek apologia merkea eta ondoren jarri dudana itzulipurdi tranpati postmo-derno gaitz dituzuna, estatistikoki gertagaitza zaren lagun hori, sarraski-kidea, nik neuk ez dut ulertzen zeren bila iritsi zara honen urrun, akaso lehen aipatu euskal idazle handia Iñigo

Aranbarri dela kuxku-xeatu nahian, behar ez duen bere defen-t s a n

lekukotza

fidelki jasotzeko edanegia nengo-ela aitzakiatzat jartzeko tarterik gabe nabilela. ■

Antton Olariaga

